

a) Familia unitatearen urteko errenta (azpiataletako puntuak metagarriak dira, atalari dagokion gehieneko puntuazioa lortu arte):

- 2018ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 10.302,60 euroak gainditzen: 0,5 puntu.
- 2018ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura aipatutako kopurua baino gehiago bada: 0 puntu.
- Halaber, aurreko kasu guztietan, eskatzaileaz gain duen adin txikiko seme/alaba bakoitzagatik: 0,25 puntu.
- Atal honetako gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.

b) Bizilekuaren gertutasuna (azpiataletako puntuak ez dira metagarriak).

- Ikaslearen etxea eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan egoteagatik: 5 puntu.
- Ikaslearen etxea eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakidean egoteagatik: 2 puntu.
- Eskatutako ikastetxea dagoen herrian izatea ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo: puntu 1.
- Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo: 0,5 puntu.
- Eskatutako ikastetxearen edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe bateko eragin-eremuan izatea ikaslearen lantokia edo haren aitaren, amaren edo lege-ordezkarriaren bizilekua: 2 puntu (puntu hauek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean lan egiteagatik eskuratu daitezkeen puntuekin).
- Atal honetako gehieneko puntuazioa: 5 puntu.

c) Ikastetxean lan egin edo ikasten duten familiartekoak izatea (azpiataletako puntuak ez dira metagarriak).

- Anaia-arreba bat edo gehiago eskatutako ikastetxean edota atxikitako ikastetxe batean matrikulatuta egoteagatik: 9 puntu.
- Aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean edo ikastetxe horri atxikitako ikastetxe batean lan egitea: 7 puntu (puntu horiek ezin dira batu ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik eskuratu daitezkeen puntuekin).
- Atal honetako gehieneko puntuazioa: 9 puntu.

d) Familia ugariko kide izatea.

- Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: puntu bat.
- Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

e) Familia-harreraren egotea:

- Ikasle eskatzailea familia-harreraren egoteagatik: puntu 1.

f) Desgaitasuna (kontzeptu honengatik, 2 puntu, gehienez ere).

- Ikasle eskatzailearena baldin bada: 2 puntu.
- Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena baldin bada: puntu bat.

g) Kooperatiba-bazkide izatea.

- Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izateagatik: 0,5 puntu.

h) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak ezarritako beste egoera adierazgarri batzuk.

- Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak askatasunez erabakitako irizpideak (aurrez adierazitakoak ere izan daitezke), eta ezartzeko irizpide publiko, objektibo eta ez-diskriminatzaileak erabiliko dira (ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialetan oinarritutako irizpide diskriminatzaile onartu): 1 puntu, gehienez ere. Irizpide horiek ezagutzera emango dira eskabideak aurkezteko epea ireki baino lehen.